

# Euskal Herriko historiaz zer da iragan erreal?

MANEX GOYHENETCHE

Gaiaren inguruan hainbat galdera pausa daitezke eta hainbat aburu eman. Zer da historia egitea? Zer da historia irakastea jakinez gutarik gehienak irakasleak garela? Nolako historia egina izan da (iragana)? Nolako historia egin behar da (geroa)? Historia ala mitologia? Historia ala literatura edo fikzio narratiboa? Historia ala filosofia? Historia ala antropologia? Arlo horietan denetan zenbat jende ez da ibili historiaren izenean?

Zenbatetaraino ez ote dugu gure ametsa egia bihurtzen, gure asmoak eta norabideak frogatu nahian, historia eraldatuz gure eskupeko tresna bat, asmatu eta amestu egia nagusien fikzioa egiten delarik, eta hori dena zientziaren izenean, bereziki *ex cathedra* ari garelarik, edo instituzio edo alderdi edo botere baten estrategia sendotu eta suspertu nahian.

Zenbatetaraino iraganeko errealtatearen egia bilatu nahian edo aitzakipean, gaurko gure mentalitatearekin eta hitzekin, historiaren instrumentalizazioa dugu egiten. Gizazientzia arloko eta gure duda-muda lanbrotsuen arteko saiakera soil bat izateko ordez, historia ez ote da bihurtzen guk eginikako egia. Historiarako urratsbide zientifiko bakoitzak eraikitako egiaren aldarrikapena bihurtzen da askotan, jakinez urratsbide zientifikoa ez dela egiaren aldarrikapena, baina galderak pausatzeke eta pausatu galderei ikerbideak bilatzeko jarrera. Ildo beretik joanez, eromena dudarengandik dator? ala segurtamenarengandik?

Ezin ditugu gaur hemen galdera guziak arakatu, baina hausnarketari hasiera bat ematerakoan, gehiegi sakondu gabe, hiru punturen inguruan eraman daiteke: 1. Zer da historiaren funtzioa? 2. Zertarako egin edo eraiki behar da historia? 3. Nolako historia egin behar da? Hiru puntuak elgarri lotuak dira.

## Historiaren funtzioa(k)

Historiaren funtzio(a)k doenerdi bat ikuspuntu desberdinetarik iker daiteke. Zenbaitzuek lehentasuna ematen diote funtzio erudito-zientifikoari, materiala bilduz eta landuz jakitatearen satisfazio intelektuala betetzeko. Nere aldetik, garrantzia gehiago ematen diot funtzio sozialari: bizi dugun gizartea ulertu, arlo guziak ikertuz eta landuz, gizarteak bizi dituen arloak eta ez bakarrik gertakari soilen arimarik gabeko kronologia. Jakinez, hemen ere, gizartearen izaitea, iraganaren bizitza erreal bere egia osoan ez dugula inoiz lortuko, amaitugabeko ikerketa dela, probabilitatea-

ren itzalpean gordetzen dena. Mitifikazioak saihets ditzazkegu, neurri batean, ahal bezain leialki irizpide metodologikoak erabiliz.

Beste batzu ariko dira historiari funtzio kulturala eman nahian. Zergatik ez? Herri baten aitzineko belaunaldiek bildu, biziara, ekarri eta transmititu ondarea ere da historia. Bizi den herri batek bere memoria historikoa eskuratzeko nahia eta eskubidea du, anitzetan itzalperaturik dena, ez bakarrik auzoko beste potentzia batzuegatik, baina ere guhaurek ahantzi, baztertu, galerazi dugulako edo batzuek digutelako (Ikus memoria historikoa eskuratzeko egiten dituen lanak Nafarroako Fusilatuen eta Desagertuen Senitartekoen Elkartek). Horregatik beste funtzio osagarri bat eman daiteke historiari, hau da herritartasuna. Herri hau izan ote da? Ba ote dago? Historiari esker, herritartasunari argitasuna eta norabidea eman diezaioke gizarteko biztanle multzo batek. Arriskua historia tramankulo bihurtzea, ad probandum, ad demonstrandum. Kasu horretan historiak betetzen duen funtzioa politikoa da, ideologikoa.

### Historiaren autonomia eta legitimitatea

Bereziki gatazka politikoen arteko zurrunbiloak direla ta, arriskua izan daiteke eta da historia bihurtzea tresna bat, instituzioen ala alderdien eskuetan. Hainbat gobernuburu edo alderdiburu ez ote da bihurtzen historiako irakasle? Aparatoek ez ote dute tresna politiko bezala erabiltzen historia? Begira zer gertazen den Nafarroako gobernuarekin edo Madrileko Real Akademiarekin. Tranpa izan daiteke erantzuna ematea bide beretik, hau da historia tresna politiko bezala erabiliz. Historigileak askatasun osoz berea den arloan aritzeko legitimitate eta eskubide osoa zaindu behar du. Gobernuburu batek daukan legitimitatea gobernuburu bezala da, bozken bidez lortua, herria gobernatzeko, administrazioa bideratzeko, baina ez sasi-zientzia zerbait aldarrikatzeko edo mugatzeko, ez historiaz aritzeko, izatekotan historia ikasteko. Aparato instituzionalek ala politikoek beti ukanen dute historia tresna politiko bezala erabiltzeko. Modu horrelako zama ukatu behar diogu historiari. Historigilearen funtzioa ez dabil bide hortarik. Funtzio nagusia soziala eta kulturala izanik, ez politiko-ideologikoa, historialariak ez du deus demostratzerik, ez du zorrik, ez du kontu ematerik, non ez den ikerketa arloko lankidei. Historigilearen legitimitatea ez dator aginte instituzionalen edo politikoen esparrutik. Ikerbideak librok, inoren zaindaritzarik eta mugapenarik gabe eramateko eskubidea zaindu behar du historigileak.

Bidea jadanik erakutsi zigun A. Oihenartek XVII. mendean: «*quo nobis impensius laborandum unaquaque re ad veritatis trutinam, spuria a legitimis dubia a certis speremus*» (Notitia Utriusque Vasconiae, liburu II, kap. X).

### Zer ote daiteke Euskal Herriko historia?

Askotan aipatzen den gaia da, oztopoz betea dena. Horietarik bat, eta ez xarrena, da herria hiru marko instituzionalen artean banatua dela. Errazago da lurralde bakoitzeko historia parziala eta mugatua, -beraz eskasa-, egitea ez eta orokorra. Hortarako

behar da goratasun batean jarri,- Larrune ala Ortzanzurieta kaskoan-, ikertzeko zer pasatu den garai berean, lurralde desberdinetan, jakiteko gauzak nola iragan diren Euskal Herriko lurralde desberdinetan, ber denboran. Zonbaitzuek galdera pausatzen dute behar ote den Euskal Herriko historia orokorrik, zertarako eta nolakoa? Asuntua argi utzi behar da. Euskal Herriko historia orokorra egitea historia nazionala egitea ote da? Historia nazionala egiteko nazio bat behar da. Kultura arloko ikuspuntutik begiratu eta nazio bat osatzen duela Euskal Herriak ez da dudarik, baina lurraldetasun politiko-administratiborik gabe. Hizkuntza eta kultura amankomuna dugu, antropologiako ezaugarri amankomun bat baino gehiago ditugu. Baina ber denboran aurpegi anitzetako Euskal Herria da. Lurralde bakoitzak gordetzen du bere berezitasuna, bizi izan du bere iragan berezia, garatu ditu bere indar sozio-ekonomiko propioak, arabera eredu juridikoak.

Euskal Herriko historia egiterakoan tranpak badaude, arriskuak, ikuspegi edo urratsbide uniformista batetik dena begiratzea. Askotan tranpan erortzera bultzatzen gaitu Euskal Herriko historiaz daukagun ikuspegi artifizialak edo irrealak, bakoitzak bere asmoekin eta ametsekin betetzen duena.

Foruen kasua har dezagun. Gai honetaz hitzegiten dugularik ez ote gara anitzetan erortzen sinplekerietan? Definizio, nozione, konzeptu edo edukin bera foruei ematea Bizkaiaitak Zuberoraino, gauza polita da Euskal Herriak osa dezaken nazioari pentsatuz, gure gogo-bihotzean dugun Euskal Herria amestuz. Baina historiaren haritik ote dabil ametsa? Badakit ametsak egin behar dituela jendeak bizi dituen marko instituzionalak gainditzeko. Baina hotz hotzean gauzak gertatu diren bezala ikertzen delarik, hor dago iraganeko egoera erreala. Hemen badugu tesia baten gaia: Euskal Herriko lurralde desberdinetako legedi desberdinen ikerketa konparatiboa, inoiz ez dena egina izan. Adibidez, elgarren artean zer dute ikustekorik, zer dute amankomuna Bizkaiko foruak eta Lapurdiko kostumak? Gainera, azken kasu honetan, - baina berdin izan da Zuberoan-,»foru» hitza ez da erabilia izan Lapurdin XIX. mendea aitzin, gerla karlisten eraginez. «Euskaldunen lege zaharrak» dira omen lurralde desberdinetako «foruak». Bai, XVIII-XIX. mendeetan azaldu literatura bati begiratzen badiogu, garaiko kontestu historiko eta juridikoan aztertu behar dena. Baina testo desberdinak parekatzen baditugu, besterik agertzen da. Har dezagun Gipuzkoako forua eta Lapurdiko foru/kostuma. Hona hemen azalpen kantitatibo bat gaien banaketari buruz:

#### LAPURDIKO LEGEDIA («kostuma» hitza dakarrena):

- Erakundetze politiko-administratiboaz: 28 artikulua.
  - 23: erregearen esparru politiko-judizialaz.
  - 5 Lapurdiko Biltzarraren esparruaz.
- Erakundetze sozialaz: 129 artikulua (hiru ardatzen inguruan: etxea, familia, ezkontza).
- Erakundetze ekonomikoaz: 39 artikulua.

## GIPUZKOAKO LEGEDIA («foru» hitza dakarrena)

- Erakundetze politiko-administratiboaz: 178 artikulua.
  - 94 artikulua: junten erabileraz eta eskuharmenez.
  - 58 artikulua: hermandadeen erabileraz eta eskuharmenez.
  - 16 artikulua: escribanos» deitu funtzionalgoaz.
- Kanpoko edo nazioarteko harremanetaz: 25 artikulua.

Konparaketa kantitatibo honek, gainez gain egina bada ere, argi uzten du legedi bakoitzak gordetzen edo zaintzen duen gizarteko dinamika berezia, historiako urratsbideen eta eraldaketen emaitza dena. Lapurdiko eta Gipuzkoako kasuan erakundetze politiko-administratiboaren bi dinamika eta eredu desberdin isladatzen ditu legediak, biak Euskal Herrikoak direnak, baina lurralde bakoitzaren nortasun sozio-politikoari lotua, lurralde bakoitzak bere historia propioa iragan baitu, arabera garapen sozio-ekonomikoaren eta antolaketa politiko-administratiboaren eraginez.

Ondorioz Euskal Herriko historia orokorra/nazionala (ez nazionalista) aurreratu nahi bada, sare historiko-geografiko desberdinak kontuan hartu behar dira, lurralde-konzeptua ez da bakarrik oinarritu behar ezagutzen ditugun marko juridiko-instituzionalen artean, ezaugarri sozio-ekonomikoak ere kontuan hartu behar dira, hala nola baserria/hiria, baserria/itsasaldea.

Hortarako oraindik eta berriz ere Euskal Herriko historia orokorra egitekotan, ez ote dugu itzuli behar lurralde desberdinetako, sare desberdinetako mikrohistoriara?

Kronologiak dakarren oztopoa ere gainditu behar da, bereziki garai/perioda desberdinen mugapena. Erdi Aroaren bukaera berdinean ote da Bizkaian eta Nafarroan? Erregimen Zaharraren erorketa argi da noiz gertatu zen Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan: 1789an. Baina Hegoaldeko lurraldeek beste kronologia bat dute jasan Erregimen Zaharraren bukaerari buruz. Nola sartu kronologia eta garai desberdinak Euskal Herriko historia orokor erreala batean? Aterabidea ez ote ditaikie izan Europako historia? Euskal Herriko historia ala Europakoa, biak egitekoak dira, biak hutsunez beteak, biek historiaren bideak hartu behar mitologian erori gabe. Bada hor zerbait ikertzeko.

## RESUMEN

El autor se pregunta por tres tres cuestiones. La función(es) de la historia, para qué y cómo hay que hacer historia y por último qué tipo de historia hay que llevar a cabo. En la primera cuestión, el autor enfatiza la función social de la historia, sin olvidar la función cultural, ya que a su entender, un pueblo tiene el derecho de acceder a su memoria histórica. Al abordar la segunda pregunta, plantea el tema de la legitimidad y la autonomía de la historia. A su entender, teniendo en cuenta el interés del poder para con la historia, el historiador debe investigar libre de ataduras. La última cuestión la plantea desde el punto de vista de la historia de Euskal Herria, una historia que debe ser general y nacional, pero no nacionalista. A su modo de ver, esta historia, debe tener en cuenta las diferentes redes histórico-geográficas y las características socioeconómicas de estas.

## LABURPENA

Egileak hiru galdera pausatzen ditu. Zer da historiaren funtzioa(k)? Zertarako egin edo eraiki behar da historia? Nolako historia egin behar da? Lehendabiziko galderari dagokionez, egileak, historiaren funtzio soziala nabarmentzen du, era berean ez du funtzio kulturala baztertzen, bere aburuz, herri batek bere memoria historikoa eskuratzeko eskubidea du. Bigarren galderari ekitean, historiaren autonomia eta legitimitateaz jardun du. Ezaguna baita boterearentzat, historiak funtzio politiko-ideologikoa betetzen duela. Bada, gure egilearen iritziz, historiagileak inoren zaindaritzarik gabe eramanez behar du ikerbidea. Hirugarrena birformulatu egiten du, galdera honela emanez: posible ote da Euskal Herriko Historia bat, eta horrela balitz nolakoa? Hainbat adibide jarri ondoren, Euskal Herriko historia orokorra/nazionala (ez nazionalista) aldarrikatzen du. Hori egitean, sare historiko-geografiko desberdinak eta ezaugarri sozioekonomikoak kotuan hartu behar dira.

## ABSTRACT

The author poses three questions: the function—s— of history; for what and how to make history and finally the sort of history to be carried out. In the first question the author emphasises the social function of history, not forgetting the cultural, on the understanding that people have the right to accede to their historic memory. On tackling the second question, the topic of the authenticity and autonomy of history is dealt with. Bearing in mind the interest of power in history, the historian should carry out his research free of restrictions. The last question is presented from the point of view of the history of the Basque Country, a history that must be general and national, but not nationalist. Such history must bear in mind the different historical-geographic networks and their socio-economic characteristics.